



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

NOIZ: 2016ko abenduaren 28an, gaueko 21:00etan

NON: Ikaztegieta Udaltxeko Areto Nagusian

BERTARATUAK: Alkatea: Bakarne Otegui Jauregui (EH BILDU)

Zinegotziak:

Miren Josune Mendizabal Macazaga (EH BILDU)

Igor Urreta Garayalde (EH BILDU)

Xabat Iburguren Lazkano (EH BILDU) *Alkatetza dekretuen berri emate puntuan etorri da.*

Patxi Ulanga Mujika (EAJ-PNV)

Maria Belen Plaza Malaxetxebarria (EAJ-PNV)

Idazkaria: Jose Mari Saiz Pagoaga.

BERTARATU EZ DIRENAK:

Imanol Ormazabal Arin (EAJ-PNV)

AZTERGAIK:

1.- 2016ko irailaren 28ko ohiko, azaroaren 2ko ez ohiko eta azaroaren 25eko ez ohiko udalbatzetako akten onarpena.

2.- Alkateak emandako ebazpenen kontu ematea.

3.- 2017. urteko Udal Aurrekontuaren eta Plantillaren onarpena,



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

- 4.-2017. urterako Ikaztegieta Udalaren Lanpostuen Zerrenda aldaketa onartzea.
- 5.- 2/2016 kreditu aldaketaren onarpena. Transferentzia Kreditu motakoa.
- 6.- Udal kontu hartzaileak 2016 ekitaldian formulatutako eragozpenen aurkako desadostasunaren ebazpen txostena, bai eta diru sarreren arloan detektatutako anomalia nagusia ere.
- 7.-Orain arte exekutatutako aurrekontuaren eta altxortegiaren berri ematea.
- 8.-Mozioa
- 9.- Eskari galderak
- 10.- Berri emateak

- ESAN EGINAK ETA ERABAKIAK:

Osoko Bilkura legez osatzeko behar adinako kopuruak parte hartzen duela egiaztatu ondoren, Alkateak bilkura irekitzat ematen du.

Bestalde Udaltzako aho batez berretsi egiten du gai ordena eta beraz gai zerrendako gaien azterketari ekiten zaio.

1.- 2016KO IRAILAREN 28KO OHIKO, AZAROAREN 2KO EZ OHIKO ETA AZAROAREN 25EKO EZ OHIKO UDALBATZETAKO AKTEN ONARPENA

Alkateak galdetzen du ea korporazioko kideren batek baduen aipaturiko 2016ko irailaren 28ko ohiko, azaroaren 2ko ez ohiko eta azaroaren 25eko ez ohiko udalbatzetako akten onarpenean inolako oharrik aurkezteko



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

asmorik.

Bertaratutako zinegotziek EAJ/PNV alderdiko zinegotzien abstentzioarekin (azaroaren 2 eta 25eko ez ohiko udalbatzetako aktetan) honako ERABAKIA hartzen du Udalbatzak:

BAKARRA: 2016ko irailaren 28ko ohiko, azaroaren 2ko ez ohiko eta azaroaren 25eko ez ohiko udalbatzetako aktak onartzea.

EAJ/PNV alderdiko Patzi Ulanga Mujika zinegotziak adierazten du abstenitu egiten direla azaroaren 2 eta 25eko ez ohiko udalbatzei dagokien akten onarpenean ez zirelako udalbatza horietara etorri.

2.- ALKATEAK EMANDAKO EBAZPENEN KONTU EMATEA.

Gaurko honetan 2016/131etik 2016/180rainoko ebazpenak irakurtzen dira.

3.- 2017KO AURREKONTUAREN, BERE EXEKUZIO ARAUAREN ETA UDAL PLANTILLAREN ONARPENA.

2017 URTEKO AURREKONTUAREN ONARPENA .

2017ko aurrekontuaren espedientea onestea proposatu da, konkretu honako hau izanik kapituloka bere laburpena:

2017KO AURREKONTUA

SARREREN EGOERA

Kapituloa

Izendapena

Euroak



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

	1	Zuzeneko zergak		106.391
2		Zeharkako zergak	2.000,00	
3		Tasak eta bestelako sarrerak	43.163,20	
4		Transferentzia arruntak	421.653,04	
5		Ondare sarrerak	5.358,00	
		Guztira.....	578.565,51	

GASTUEN EGOERA

Kapituloa	Izendapena	Euroak
1	Pertsonal gastuak	216.312,00
2	Ondasun arrunten erosketak eta zerbitzuak	213.894,85
3	Finantza gastuak	2.100,00
4	Transferentzia arruntak	78.194,00
6	Inbertsio errealak	25.064,66
9	Finantza pasiboak	43.000,00
	Guztira.....	578.565,51

Honekin batera, espedientearen barne, Aurrekontu exekuziorako Udal Araua ere aipatzen da, eta ondoren hitzez-hitz azaltzen den testua onartzeko proposamena luzatzen dio Alkatetzak udalbatzari:



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

AURREKONTUA GAUZATZEKO ARAUA

1. artikulua.- Aurrekontu Orokorren edukia

Ikaztegietakoko Udaleko Aurrekontu Orokorra bere Aurrekontu propioaz osatua dago. 578.565,51€ ko gastua eta 578.565,51€ ko sarreraz osatua.

2. artikulua.- Berme-eskaintzaren mugak

2017ko ekitaldi ekonomikoan Ikaztegietakoko Udalak ez du abalik emateko asmorik azaldu.

3. artikulua.- Zorpetze muga

Udal Entitateak kontzertaturiko indarreko eragiketen batukinetik ateratako urteko finantza kargak, hala nola proiektatutakoak, EZIN DU GAINDITU AURREZKI GORDINAREN MUGA.

4. artikulua.- Kredituen araudi orokorra

Kredituen lotespen juridikoen mailak

Gastuetarako kredituak aurrekontuan edota horren aldaketetan onetsitako xederako soilik erabili ahal izango dira.

Onetsitako kredituak mugatzaileak eta lotesleak izango dira, honako lotespen-mailaren arabera:

- * Programa funtzionala eta azpi kontzeptu ekonomikoa, inbertsio errealentzat.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

- * Programa funtzionala eta kontzeptua, transferentzietan -arruntak nahiz kapitalezkoak- eta finantza aktiboetan.
- * Programa funtzionala, kapitulua eta azpi organoa, ondasun arruntan eta zerbitzuen erosketetan.
- * Kapitulua, pertsonalaren gastuetan, interesetan eta finantza pasiboetan.

5. artikulua.- Kreditu aldaketaren erregimenari buruzko arauak

Aurrekontu kredituak aldatu ahal izango dira, Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko, abenduaren 19ko, 21/2003 Foru Arauak eta Aurrekontua Gauzatzeko Arau honek jasotzen dituzten xedapenen arabera.

Kredituak aldatzeko proposamenarekin batera adierazi beharko da zein programa funtzionaletan izango duen eragina. Halaber, burutu beharreko ekintzetan nahiz lortu nahi diren helburuetan gertatuko diren aldaketak jaso beharko dira, horiek neurtzeko erabilitako adierazleen zenbateko eta maiztasunak ere eguneratuz, hala behar izanez gero.

Lehendakaria izango da kreditu gehigarriak onartzeko eskumena duen organoa, baldin kreditu horien urteko zenbateko metatua aurrekontuko hasierako kredituen %5 baino gutxiago bada. Kasu horretan ez dira bete beharko 21/2003 Foru Arauaren 15. artikulua jasotako informatze eta argitaratze arauak.

6. artikulua.- Aurrekontua gauzatzeko jardunbidearen erregulazio arauak

1.- Gastuen aurrekontuaren exekuziorako faseak.

Gastuen aurrekontua honako faseetan kudeatu beharko da:

- a) Gastuaren baimena.
- b) Gastuaren erabilera.
- c) Obligazioaren onarpena.
- d) Obligazioaren agindua.
- e) Ordainketa gauzatzea.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

2.- Gastuen baimena eta erabilera.

Gastuen baimena eta erabilera honako eskuduntza-erregimenaren arabera arautzen da:

a) Udalbatzaren eskuduntza izango da, aurrekontuaren sarrera arrunten %10etik gorako gastuen, nahiz konpromiso-kredituek finantzatzen dituztenen baimena eta erabilera, hau da (578.565,51 x %10) 57.856,55 eurotik gorakoarena.

b) Lehendakariaren eskuduntza izango da 57.856,55 eurotik beherako gastuen baimena eta erabilera. Dena den Alkateak hilero egingo den osoko bilkuran baimendu dituen gastuen berri emango du.

3.- Obligazioaren onarpena.

Lehendakariari dagokio legez eskuratutako gastu-konpromisoetatik sortutako obligazioen onarpena.

4.- Ordainketaren agindua.

Udal Entitateko lehendakariari dagokio aurrez onartutako obligazioen ordainketa agintzea.

5.- Aurrekontu-exekuzioko faseak metatzea.

Aurrekontu gastuen izaera nahiz ekonomia eta arintasun administratiboaren irizpidea kontutan hartuz, beren exekuzioko hainbat fase ekintza administratibo bakar batean meta daiteke.

Aurrekontuko gastuen izaera nahiz ekonomiaren eta arintasun administratiboaren irizpidea kontuan hartuz, haiek gauzatzeko faseak ekintza administratibo bakar batean meta daitezke, honako kasuetan eta bertan aipatzen diren mugen barne:



Gastuen baimena eta erabilera, toki entitatean legez hartutako konpromisoetatik datozenean eta burutu beharreko zerbitzu, obra edota horniduraren zenbatekoa zehaztasunez ezagutzen denean: berez berritzen diren aldi baterako kontratuak, errentamenduak, maileguen interesak eta amortizazioa eta esleipen zuzenez erosketak.

Gastuaren baimena, erabilera eta obligazio-onarpena, eragiketa arruntan gastuetan, kontratazio prozedurari atxikiak ez direnean eta obligazioaren exigigarritasuna bat-batekoa denean Aurrekontua gauzatzeko faseak metatu ahal izateko, nahitaezkoa izango da beti ere, erabakia hartuko duen organoak berezko eskumenak, eskuordetutakoak nahiz deskonzentratutakoak izatea ebazpenaren barruan sartzen diren fase bakoitza eta guztiak erabakitzeko.

7. artikulua.- Dieta eta joan-etorrien kalte-ordainak.

Lehendakariak eta gainerako hautetsiek, udal barrutitik kanpora egiten dituzten joan-etorri eta dietengatik legeriak ezarritako kalte-ordainen eskubidea izango dute.

Funtzionarioek eta pertsonal kontratatuak egindako zerbitzuen kalte-ordainei buruzko Eusko Jaurlaritzaren otsailaren 2ko 16/1.993 Dekretuan jasotako indemnitzazioak jasotzeko eskubidea izango dute.

Kasu guztietan, bai hautetsiek, bai gainerako udal langileek, egindako bidaiaren memoria idatzi beharko dute, bertan noiz eta nora joan diren zehaztuz. Agiri honetan bertan adierazi beharko dute onartutako tarifen arabera zenbatekoa den jaso behar duten kalte-ordainaren zenbatekoa.

8. artikulua.- Diru laguntzak

Edozein jarduera antolatzeko emandako diru laguntzek bat etorri beharko dute Udalbatzak edo Alkatetzak kasu bakoitzaren aurrean erabakitakoarekin.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

9. artikulua.- Ikastaroak

Ikastaroetan parte hartzeko honako arauak bete beharko dira:

- a) Baimenaren proposamenak udal entitateko lehendakariaren oniritzia jasoko du, besteak beste honako datuak jaso ondoren:
 - * Ikastarora doanaren datuak: izen-abizenak, lanpostua, e.a....
 - * Ikastaroaren gaia, lekua eta iraupena.
 - * Ordutegia.
 - * Matrikularen kuota eta dieten eta joan-etorrien gutxi gora-beherako zenbatekoa.
- b) Udal entitateko lehendakariak ebatziko du baimen proposamenari buruz.

10. artikulua.- Kredituak aurrerapenez txertatzea

Ondorengo ekitaldiko aurrekontuan, likidazioa onartu aurretik, oraingo ekitaldiari edo horren aldaketei dagozkien kredituak txertatu ahal izango dira, baldin eta abenduaren 31n obligazioa onartu gabe badaude eta guztiok batera beharkizun hauek betetzen badituzte:

- Toki Entitateen Aurrekontuei buruzko 21/2003 Foru Arauak 32.1 artikuluan jasotako zirkunstantzietako batean egotea.
- Zerbitzuburuaren txostenaren bitartez kreditua aurrerapenez txertatzeko beharra frogatzea.
- Aldi berean kreditu hori ekitaldi honetan txertatu ez izana, salbu diru sarrera helburudunen bitartez finantzatutako kapital eragiketak badira.

Txertaketa aurreratua ekainaren 30 baino lehen egin behar da beti.



Kredituen txertaketa aurreratua gauzatuko da baldin eta horretarako baliabide finantzario nahikoak badaude.

Lehendakariak onartuko du kredituen txertaketa aurreratua, Fondoan Kontu hartzaileak txostena egin ondoren, besteak beste finantzaketa nahikoa dagoela adieraziz.

Kredituen behin-betiko txertaketa egin baino lehen, aurreko artikuluetan behin-behineko txertaketa arautua duten kredituen ordainketak tramitatu ahal izango dira.

Kredituen txertaketa aurreratua behin-behinekoa izango da, eta aurrekontua likidatu ondoren behin-betiko onartuko da.

11. artikulua.- Funtzio Ikuskatzailearen jarduera Gastuen eremuan, Ikuskatze Mugatuaren bidez.

BAT.- Orokorrean, gastuak eragiten dituzten eduki ekonomikoko ekintza guztien aurretiazko ikuskatzea eta kontu hartzailetza jarraian adierazitako oinarritzko baldintza hauek egiaztatzen mugatuko dira:

- a) Lotura mailan aurrekontu-kreditua izatea, eta aurrekontua egokia izatea. Alde horretatik, kreditua egokitzat joko da, udal diruzaintzaren gain dauden hartu beharreko edo sortutako eta ez preskribatutako obligazioak finantzatzen dituzenean, horretarako legalki ezarritako baldintzak beteta.
- b) Obligazioak edo gastuak erakunde eskudunak sortzea.
- c) Gastua finantzatzeko baliabideak eraginkorki eskuragarri egotea.
- d) Obligazioa edo gastua toki erakundeak gauza ditzakeen edo, bereak ez diren eskumenetan, gauzatzen jarraitu ditzakeen eskumenen barnean egotea, betiere, aurretik, indarreko legeriak ezarritako baldintzak beteta.
- e) Obligazioak edo gastuak aurrekontuaren egonkortasuna edo finantza iraunkortasuna arriskuan ez jartzea.
- f) Obligazioari edo gastuari sostengua ematen dioten dokumentuak egokiak izatea eta beharrezko sinadurak eta baldintzak izatea. Alde horretatik,



gastuaren obligazioa aitortzeko dokumentazioak zerbitzua, hornidura, inbertsioa edo gastua behar bezala eman dela egiaztatzen duen arduradunaren sinadura eta identifikazioa izango ditu.

g) Konpromisozko kredituen eta hainbat urtetarako gastuen kasuan, Lurralde Historikoko Tokiko Erakundeen Aurrekontuetarako Foru Araudiak ezarritako mugak eta baldintzak betetzea.

h) Obligazioa edo gastua bere gain hartzen duen aurrekontu sailak iragankortasun arauak betetzea, bai eta espezialitate eta espezifikazio arauak ere, gastuaren izaera funtzionalaren eta ekonomikoaren arabera, bai eta izaera organikoaren arabera ere, kasua balitz.

i) Kudeaketa prozesuan duten garrantzia dela eta, Udaleko osoko bilkurak erabakitako bestelako aspektuak.

BI.-Aurreko atalean ikusitako aspektuez gain, kontratuetatik, hitzarmenetatik eta diru-laguntzetatik, bai eta langileen gastuetatik eta bestelakoetatik ere ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituen ikuskatze mugatuak jarraian adierazitako aspektuak ere egiaztatuko ditu:

a) Kontratuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Agiriak, hautaketa irizpideak eta horien balorazioak zein kontratazio prozedurak Sektore Publikoko kontratuen arloko indarreko legeriara egokitzea.
- Kontratua eta hautatutako prozedura justifikatzea.
- Aldaketa posibleen legearen arabera, kontratuen beharrezko aurreikuspena.
- Kontratuaren iraupena egiaztatzea eta justifikatzea, luzapenak barne.
- Aurrekontu ekitaldi bat baino gehiagoren gain gauzatu behar diren kontratuetan, gastuaren sail kudeatzailearen arduradunek kontratuaren beharrezko denbora- eta finantza plangintza gauzatu izana.
- Lanetan, hasi aurreko zuinketa akta, eta azken ziurtagiriaren azken harreraren eta onarpenaren akta.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

- Euren gauzapena ekitaldi batera baino gehiagora luzatuz gero, agiriek gastuan inplikaturako aurrekontu ekitaldi bakoitzean eskuragarri dauden sailak eta zenbatekoak zehaztea.

b) Hitzarmenetatik eta diru laguntzetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Diru laguntza izendunak objektua eta onuraduna identifikatzen dituen aurrekontu saila izatea.
- Diru laguntza izendunaren txostenean, prozedura aukera konkurrentzia lehiakorraren salbuespen gisa justifikatzea.
- Egin beharreko hitzarmenaren xedea Sektore Publikoaren Kontratuen Legearen Testu Bateginak araututako kontratuen barnean ez egotea.
- Hirugarrengoaren akreditazioa edo onuradunak zerga obligazioetan eta gizarte segurantzaren aurrean egunean dagoenaren egiaztapena.
- Onuradun baldintza lortzeko debekurik ez izatea.
- Onuradunak funtsen helburua justifikatzea, hitzarmenean edo deialdiaren oinarrietan ezarritakoaren arabera, eta diru laguntzen legeriaren arabera. Bai eta justifikazioaren akreditazioari buruzko diru laguntzaren sail kudeatzailearen txostenaren konstantzia ere espedientean.
- Funtsezkotzat jotzen diren bestelako aspektuak, diru laguntzen arloko indarreko legeriaren arabera.

c) Langileen gastuetatik ondorioztatutako obligazioak edo gastuak sortzen dituzten ekintzetan, honako hau egiaztatuko da:

- Indarreko ekitaldiko Estatuaren Aurrekontu Orokorren Legeak eta gainontzeko legeria aplikagarriak ezarritako baldintzak eta mugapenak betetzea.

d) Bestelako gastuak:

- 18.000,00 € ko edo gehiagoko ondare erreklamazioetan, Euskadiko Batzorde Juridiko Aholkulariaren irizpena izatea.
- Bestelako funtsezko baldintzak, obligazioaren edo gastuaren arabera.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

HIRU.-Erakunde kontu-hartzaileak egokitzat jotako behaketa osagarriak egin ahal izango ditu, horiek dagozkien espedienteen izapidetzean inolako etendura eraginik izan gabe. Gainera, behaketa osagarri horiei dagokienez, ez da desadostasun planteamendua egin beharko.

LAU.- Kontratu txikiek eta kutxa finkoko aurrerakinek ez dute aurretiazko ikuskatzerik izango. Aurrekontu-sail bakoitzean kreditua dagoela egiaztatzeko Sail kudeatzailearen ardurari kalterik egin gabe.

BOST.- Ondorengo artikuluetan garatu bezala, aurretiazko kontrol mugatuak ondorengo ikuskatze osoa ekarriko du berekin, ikuskaritza eta laginketa teknikak erabiliz; horren emaitza barne-kontrolako urteko txostenean islatuko da, atal independente gisa, ondorengo kontrol ikuskatzaile osoari buruzko txostena izenburuarekin.

12. artikulua.- Eragozpenak eta horien izapidetzea:

Bat. Aurreko Artikuluko Lehenengo eta Bigarren ataletan landutako aspektuak aztertzerakoan, erakunde ikuskatzaileak txostenean arrazoiz adierazten duenean ikuskatze mugatua egiaztatutako aspekturen bat ez dela betetzen, idatziz ere egingo du «Eragozpenerako Txantilo Normalizatua», eragotzi beharreko aspektuei dagozkien kutxatilkak markatuta eta, bertan horren eraginak eta izapidetzea adierazita.

Ikuskatze mugatua gauzatzeko gehieneko epea bost egun baliadunekoa izango da, ikuskatu beharreko espedientea jasotzen den unetik aurrera.

«Eragozpenerako Txantilo Normalizatua» erakunde kudeatzaileari bidali beharko zaio, horren arduradun tekniko nagusiari edo zuzendariari kopia ere bidalita.

Eragozpenarekin ados egonez gero, erakunde kudeatzaileak espedientea zuzendu edo hori izapidetzeari uko egin ahal izango dio.

Espedientea zuzenduz gero, erakunde kudeatzaileak berriro bidaliko dio hori erakunde kontu-hartzaileari.

Ados izan ezean, erakunde kudeatzaileak desadostasun-txostena egingo du. Kasu horretan, desadostasuna 5 egunetan igorri beharko da, gehienez, desadostasun-txostenaren kopia erakunde kontu-hartzaileari eta gastua onartzeko erakunde eskudunari (alkatea - zinegotzi ordezkaria edo osoko



bilkura, eragotzi beharreko objektuaren arabera, hori izapidetzea dagokion pertsonaren arabera eta hori eteteko modukoa den ala ez kontuan izanda) bidalita. Horrela, honako bi egoera hauek izango ditugu:

A).- Kentzea osoko bilkurari dagokion eragozpenei dagokienez:

-Eragozpen etengarria: aurreko Artikuluko Lehenengo atalaren a) eta b) letrak, bai eta obligazioak eta gastuak onartzea osoko bilkuraren eskumena diren kasuetan ere.

Kentzea krediturik ez izateagatik edo nahikoa ez izateagatik 2. artikuluko a) letrari dagokionean, kentze hori gastua estaltzen duen aurrekontu aldaketa egokiarekin batera planteatu beharko da derrigorrez.

Etete ondorioak dituen «Eragozpenerako Txantilo Normalizatuaren» izapidetzea osoko bilkuraren Araudi Organikoan aurreikusitako xedapenetara doituko da edo, bestela, toki-araubidearen antolakuntza arloko oinarritzko legeriara.

B).-Kentzea alkate-presidenteari dagokion eragozpenen izapidetzeari dagokionez: Alkate-presidenteak bere irizpidearen arabera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak bildu ahal izango ditu. Alde horretatik, etete-ondorioak ez dituzten «Eragozpenerako Txantilo Normalizatuan» bildutako arauen betearazpenari buruzko kontu hartzailetzaren iritziak ez dira nagusituko kudeaketa-erakundeen iritzien aurrean, ez eta alkate-presidenteak finantza-babesa esleituta duen Administrazioaren arloko kontrol-erakunde eskudunari eska dakizkiokeen txostenen aurrean ere.

Bi. Erakunde kontu-hartzaileak eutsitako irizpidea jarraitu ezean, bere arduradun teknikoaren edo zuzendariaren bidez, erakunde kudeatzailea arduratuko da, erakunde kontu hartzailearen oharra ikusita eta aztertuta, hori hartu dela zehazki jakinarazteaz, akordioa hartzeko ebazpenean.

Hiru. Urtero, urteko azken ohiko osoko bilkuran eta barne kontroleko testu honetan bildutako baldintzetan, Kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez erakundeko presidenteak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru sarreren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio.

13. artikulua: Ondoko kontrol kontu-hartzaile osoari buruzko txostena:

Bat. Ikuskatze mugatuaren onarpena eta ezarpena dela eta, finantza-kontrolako urteko txostenarekin batera, erakunde kontu-hartzaileak ondoko kontrol kontu-



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

hartzaile osoaren ekintzen emaitza igorriko du, gastuen espedienteen lagin adierazlearen gainean.

Erakunde kontu-hartzaileak lagina hautatzeko aplikatu beharreko prozedurak zehaztuko ditu, eragiketa-talde jakin batzuetako hutsuneei buruzko aurretiazko informazioa duten kasuak zein hutsuneren bat detektatu duten prozedurak gailenduta. Gainera, lagina indarreko aurrekontuaren % 10 izango da, gutxienez.

Bi. Txosten hori osoko bilkurari bidali baino lehen, eragindako Unitate kudeatzaileak mugituko dira, gehienez, 10 eguneko epean, alegazioak aurkeztu ahal izateko, eta horiek ikusita, erakunde kontu-hartzaileak behin betiko txostena igorri dezan.

14. artikulua: Funtzio Ikuskatzailearen jarduera Diru Sarrereren eremuan, Ikuskatze Mugatuaren bidez:

Bat. Diru-sarrereren arloko aurretiazko ikuskatzea kontularitzako arrazoi hartzeagatik ordezkutzen da. Gastuen kasuan bezala, sistema horrek laginaren gaineko diru sarrereren ondoko egiaztapen osoa eskatzen du, emaitza aurreko 13. Artikuluan araututako txostenean bilduta.

Bi. Diru-sarrereren eremuko ikuskatze mugatua hurrengo aspektuen egiaztapenaren bidez egingo da:

- a) Organo eskudunak ordaintzea.
- b) Kontularitzako arrazoi-hartzea gauzatzea.
- c) Kasua izanez gero, dagokion BEZ igortzea.
- d) Diru-sarrera bidegabeen itzuleraren arloan, itzulera kudeatzen duen Sailak igorritako aldeko txostena izatea.
- e) Errolden eta zerrenda frogagarrien ikuskatzean, indarreko legeria betetzen dela egiaztatzen duen Sail kudeatzailearen txostena izatea.

Hiru. Eragozpenak eta horien izapidetzea:

Eragozpena toki-erakundearen edo horien erakunde autonomoen aldeko eskubideen aitortzearen edo likidazioari dagokionean, eragozpen-oharra egingo da; horrek, ordea, ez du inola ere espedientearen izapidetzea etengo.



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Erakunde kontu-hartzaileak idatziz jakinaraziko du ikuskatzea «Eragozpenerako Txantilo Normalizatua», eragotzi behar diren aspektuei dagozkien kutxatila markatuta, aipatutako txantiloian horren eraginak eta izapidetzea adierazita.

Ikuskatze mugatua gauzatzeko gehienezko epea bost egun baliodunekoa izango da, ikuskatu beharreko espedientea jasotzen den unetik aurrera.

«Eragozpenerako Txantilo Normalizatua» erakunde kudeatzaileari bidali beharko zaio, horren arduradun tekniko nagusiari edo zuzendariari kopia ere bidalita.

Eragozpenarekin ados egonez gero, erakunde kudeatzaileak espedientea zuzendu edo hori izapidetzeari uko egin ahal izango dio.

Espedientea zuzenduz gero, erakunde kudeatzaileak berriro bidaliko dio hori erakunde ikuskatzaileari.

Ados izan ezean, erakunde kudeatzaileak desadostasun-txostena egingo du. Kasu horretan, desadostasuna bost eguneko epean igorri beharko da, gehienez, desadostasun-txostenaren kopia erakunde kontu-hartzaileari eta alkate-presidenteari bidalita, hori ebazteko.

Alkate-presidenteak bere irizpidearen arabera konpontzeko beharrezkotzat jotzen dituen txostenak bildu ahal izango ditu.

Eragozpena kenduz gero, zehazki jakinaraziko da akordioa hartzeko ebazpenean, hori hartu dela, erakunde kontu-hartzailearen oharra ikusi eta aztertu ondoren.

Urtero, kontu-hartzailetzako organoak txostena helaraziko dio osoko bilkurari, adierazitako eragozpenei dagokienez erakundeko presidenteak hartutako ebazpen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio

15. artikulua. Finantza eta Ikuskapen Kontrolaren jarduera:

Bat. Erakunde kontu-hartzaileak finantza kontrolaren funtzioa gauzatuko du, araudiaren arabera erabakitako erakundearen kontuen ikuskaritza barne.

Bi. Finantza kontrola honako subjektu hauei dagokienez gauzatuko da:

- a) Zerbitzuak, Erakunde Autonomoak eta, bereziki, tokiko erakundearen



menpeko Merkataritza Sozietateak, bai eta Enpresa Entitate Publikoak ere.

b) Merkataritza Sozietateak, enpresak, erakundeak eta diru-laguntzengatiko, kredituengatiko, abalengatiko eta Udalaren zein Aurrekontu Orokorren kontura emandako gainontzeko laguntzengatiko partikularrak.

Hiru. Finantza kontrolaren helburua finantza informazioaren aurkezpen egokiaren, aplikatu beharreko arauen eta zuzentarauen betearazpenaren eta aurreikusitako helburuen lorpenaren efikazia eta efizientzia mailaren berri ematea da. Hau aurreko ekitaldiko Kontu Orokorren bitartez egingo da.

Lau. Finantza kontrola ikuskaritza tekniken bidez egingo da, eta honako hauek izan daitezke, besteak beste:

- a) Egoera balantzea
- b) Galera eta irabazien kontua.
- c) Ibilgetuaren kontrola.
- d) Finantzaketa taula
- e) Zorraren egoera.
- f) Informazio eranskina: Aurrekontuaren likidazioa eta kontabilitate orokorra erlazionatu.
- g) Aurrekontuaren likidazioa.
- h) Egiatzapen balantzea.
- i) Kreditu aldaketen egoera.
- j) Baloreen egoera eta mugimenduak.

Bost. Urtero, Kontu Orokorren tramitazioarekin batera ohiko osoko bilkuran gauzatutako kontrolaren emaitza gisa, eta barne kontrolaren testu araugilearen baldintzetan, erakunde kontu hartzaileak gauzatutako azterketatik ondorioztatutako behaketak eta ondorioak jakinarazten dituen testu idatzia aurkeztuko du. Txostenean, epigrafe jakin batean, menpeko merkataritza sozietateek derrigorrez jasaten duten finantza kontrolean lortutako emaitzak jasoko dira; izan ere, aipatutako sozietateak ez daude funtzio kontu



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

hartzailearen menpe.

Ikuskatutako erakundeak egindako alegazioekin batera, finantza-kontrolari buruzko txostena osoko bilkurara bidaliko da, horrek aztertu eta ezagutu dezan.

Sei. «Ondoko barne-kontrol osoari buruzko txostenaren» zein «finantza eta ikuskaritza kontrolari buruzko txostenaren» urteko izaera dela eta, dokumentu bakar batean aurkeztuko dira, nahiz eta txosten independenteak izan; izan ere, lehena erakunde kontu hartzailearen jardueren barnean enkoadratzen da, funtzio kontu hartzailearen jardueran, modu mugatuan jarduterakoan, eta bigarrenak baliabideen kudeaketako ekonomia, efikazia eta efizientzia printzipioen betearazpenaren egiaztapenari erantzuten dio.

16. artikulua. Diru laguntzen eta laguntza publikoen finantza kontrolaren inguruan:

Bat. Finantza kontrola erakunde kontu hartzaileak gauzatuko du, diru-laguntzen eta laguntza publikoen onuradunei dagokienez.

Kontrol lanetan antzematen bada laguntza edo diru-laguntza ez dela zuzen lortu eta erabili, edo jasotako laguntza edo diru-laguntzaren helburua ez dela aurkeztutakoa, orduantxe, erakunde kontu-hartzailearen aurretiazko baimenarekin, ikuskatze-lanok egiteko ardura dutenek atxiki ahal izango dituzte fakturak, agiri baliokideak nahiz ordezkoak eta eragiketa susmagarriei buruzko beste edozein agiri.

17. artikulua. Efikazia Kontrolaren jarduera:

Bat. Eraginkortasunaren kontrolak helburuen betetze-maila aldian behin egiaztatzen du, eta dagozkion zerbitzuen edo zerbitzuen funtzionamendu-kostua eta errendimendua aztertzen ditu, aipatutako kontrolak erabaki politikoei buruzko iritzirik eman ahal izan gabe.

Kontrol hori foru-araudiak eta aplika daitekeen gainontzeko legeriak araututako prozeduretara eta printzipioetara doituko da.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

Azalpenaren ondoren, bertaratutako zinegotziek EAJ/PNV alderdiko Zinegotzien abstentzioarekin honako hau erabaki dute:

LEHENA: 2017ko aurrekontuaren espedientea onartzea eta horrekin batera 2017. ekitaldirako aurrekontuaren exekuzio araua.

BIGARRENA: 2017. urterako Ikaztegieta Udalaren Plantilla Organikoa onartzea.

EAJ/PNVko zinegotzia den Patxi Ulanga Mujikak adierazten du abstenitu egiten direla aurrekontuaren onarpenaren alde daudelako baina plantilla organikoaren aldatetan abstenitu egiten direla.

PLANTILA ORGANIKOA

A) KARRERAKO FUNTZIONARIENTZAT GORDETAKO LANPOSTUAK

<i>Plazaren izena</i> <i>Oharrak</i>	<i>Plaza .</i> <i>kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>
IZAERA NAZIONALEKO HABILITAZIO ESKALA			
<i>Idazkaritzako Azpieskala</i>			
Idazkaria-Kontuhart.....1	A1	Hutsik	Ordealdian
ADMINISTRAZIO OROKORREKO ESKALA			
<i>Laguntzaileen Azpieskala</i>			
Administrazio Orokorreko Laguntzailea..... 1 lanaldia	C2	Jabetzan	%95,71

B) LANGILE LABORALEI ESLEITUTAKO LANPOSTUAK



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

<i>Plazaren izena</i> <i>Oharrak</i>	<i>Plaza</i> <i>kopurua</i>	<i>Taldea</i>	<i>Egoera</i>
Aguazil-jakinarezlea	1	Lanbide taldea	Finkoa %75,96 lanaldia
Polikiroldegiko arduraduna	1	C2	Finkoa %100,00 lanaldia
Gizarte Langilea	1	A2	Mugagabea %15,00 lanaldia

4.-2017. URTERAKO IKAZTEGIETAKO UDALAREN LANPOSTUEN ZERRENDA ALDAKETA ONARTZEA.

Felisa Mujika Urdangarin Ikaztegietakoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzaileari (pertsonal laboral mugagabeak) BOST URTEAKO BORONDATEZKO LAN ESZEDENTZIA EMAN zaio abenduaren 19ko datarekin 172/2016 Alkatetza Dekretuz.

Beraz, eten egin da Ikaztegietakoko Udalaren eta Felisa Mujika Urdangarin Ikaztegietakoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen arteko lan kontratua. Borondatezko eszedentzian dagoen langile batek ez du lan postuaren erreserbarik soilik lehentasun eskubide bat izango du itzultzeko bere kategoria bereko edo antzeko lan postu batera beti ere hutsik edo bete gabe badago.

Egoera honen aurrean Alkateak udal langile guztiei negoziazio mahaira deitu zien abenduaren 16an. Aipaturiko mahaian udal langile guztiak bildu ziren bertan parte hartu zuelarik udal langileen ordezkariak (Jose Mari Garmendia Izagirrek). Alkateak eszedentziaren eta honek dakarren ondorien berri eman ondoren Udalak bere barne antolamenduaren baitan hartuko dituen neurrien eta erabakien azalpena egiten zuen.

1.- Felisa Mujika Urdangarin Ikaztegietakoko Udaleko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen lan postua eta plaza amortizatzea, bere funtzioak Idoia Albisu Barandiaran karrerazko funtzionarioa den administrari laguntzailearen funtzioen baitan integratuz.

2.- Gizarte Zerbitzuetan dagoen lan karga dela eta Agurtzane Lopetegi



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Etxeberría Ikaztegietao Udaleko gizarte zerbitzuetako langileari lansaioa igotzea daukan gaur egungo %10,10etik %15era.

Lan postuen zerrendaren aldaketak aurrekontuko plantillan ere aldaketa ekarriko du.

Administrazio onaren printzipioak exijitzen du administrazioaren antolamenduaren moldaketa sortzen diren aldaketengatik, non moldaketak egungo egoera ekonomikoaren eta azpian dagon antolamenduaren irudi leiala berresango duen.

Azalpenaren ondoren, bertaratutako zinegotziek gaia eztabaidatu ondoren aho batez honako erabakia hartzen dute:

LEHENA: Onartzea aipaturiko lan postuen aldaketa espedienteari.

BIGARRENA: Felisa Mujika Urdangarin Ikaztegietao Udaleko Gizarte Zerbitzuetako administrari laguntzailearen lan postua eta plaza amortizatzea, bere funtzioak Idoia Albisu Barandiaran karrerazko funtzionarioa den administrari laguntzailearen funtzioen baitan integratuz.

Karrerazko funtzionarioa den Administrari laguntzailearen eginkizun berriak besteak beste ondorengoak izango dira:

Publikoarentzako arreta:

1. Arautegia eta legearia ezagutzea herritarrek kontsultak egin eta informazioa eskatzen dutenean bertan edo telefonoz erantzun ahal izateko, planteatzen dituzten gaiei buruz informazio espezializatua emanaz eta horien zalantzak argituz edo/eta, dagokionean, bideratuz eta filtratuz.
2. Herritarren eta Gizarte Langilearen arteko zitak hitzartzea.

Programak kudeatzea:

1. Gizarte Zerbitzuetako Erregistroa kudeatzea (sarrerak eta irteerak).
2. Gizarte Langilearekin koordinatzea.
3. Deiak jaso/egin; fotokopiak atera; bulego materiala; espedienteen bajak



(artxibantza) eta altak (fitxa sozialak).

4. Herritarrek eskatutako Foru Aldundiko ziurtagiriak lortu eta entregatu interesatuari. Gizarte Langileak prestatutako txostenak/adierazpenak makineatu eta entregatu/bidali dagokionari.
5. Eskaerak izapidatzeko falta diren dokumentuak erabiltzaileei eskatu/osatu/jaso/bidali ...
6. Etxeko Laguntza Zerbitzutik ondorioztatzen diren gestio administratiboak egitea: -erabiltzaileen altak, bajak, aldaketak - zerrendak egitea eta eguneratuta edukitzea, Foru Aldundiak ezarritako epeen barruan likidazioak bidaltzea -onuradunen ekarpenak prestatu eta gutunak bidaltzea. Zerbitzu ematen duen enpresarekin koordinatzea, erabiltzaileen inzidentziak trukatzeko etab..
7. Gizarte Langilearekin koordinatuta, programen zerrendak prestatu eta banatzea (GLL, Gipuzkoako Elikagai Bankua, udal hobariak, garraioa etab.)
8. Arloaren kudeaketatik ondorioztatzen diren zeregin administratibo guztiak: arloan kudeatzen diren espedienteak/programak tramitatzea (Informazioa, balorazioa eta aholkularitza, Prebentzioa eta Gizarte Bazterketa, Familia eta Elkarbizitza, Gizarte Lankidetzak): dekretu/jakinazpenak tramitatzea eta jarraipena egitea.
9. Gastuaren kontrola eta jarraipen ekonomikoak prestatzea eta bidaltzea.
10. Gizarte Langileak ezarritako jarraibideei jarraituz eta harek gainbegiratuta, gai hauei buruzko espedienteak tramitatzea: prestazio ekonomiko/sozialak, hala nola: menpekotasun arlokoak, KGP-PNC pentsioak, telelaguntza zerbitzuak, minusbaliatuentzako aparkaleku txartelak etab. Hainbat baliabide/programari buruzko tramitazioa: Egoitza, Eguneko zentroa, Sendian ...
11. Eskaera hauei buruzko informazioa eta tramitazioa: Familia ugariaren titulua IMSERSOko kanpainak, Eusko Jaurlaritzako Familia Politikarako Departamentuko diru laguntzak etab.
12. Gizarte Langilearekin koordinatuta, diru laguntza eskaerak izapidatzea beste instituzio/ erakundeetara eta justifikatzea epeen barruan.
13. Aurrekontuak Gizarte Langilearekin koordinatuta.



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

14. Arloaren kudeaketa artxiboa eguneratuta mantentzea.

15. Udaleko gainerako langileekin elkarlanean aritzea.

16. Lanpostuaren kategoriari egokitutako beste edozein eginkizun.

HIRUGARRENA: Idoia Albisu Barandiaran karrerazko funtzionarioa den administrari laguntzailearen lansaioa %85,71tik %95,81ra igotzea.

LAUGARRENA: Agurtzane Lopetegi Etxeberria Ikaztegieta Udaleko gizarte zerbitzuetako langileari lansaioa igotzea daukan gaur egungo %10,10etik %15era.

BOSGARRENA: 2017. urtetik aurrera Ikaztegieta lanpostuen zerrenda ondorengoa izango da:

A) KARRERAKO FUNTZIONARIAK:

1.- Gaikuntza Nazionaleko Eskala:

Lanpostua: Idazkari Kontu hartzailea.

Hornitzeko era: Lehiaketa.

Taldea: A1.

Egoera: Hutsik.

Saila: Idazkaritza.

Maila: 21.

Osagarri Berezia: 20.908,73

Dedikazioa: egutegiaren %100-a, baino eskusibitaterik gabe.

H.E.: 4a.

Derrigortasun data: 1.994-V-31.

2.- Administrazio Orokorreko Eskala:

Lanpostua: Administrari Laguntzailea.

Hornitzeko era: Lehiaketa.

Taldea: C2.

Egoera: Jabetzan.

Saila: Idazkaritza.

Maila: 11.

Osagarri Berezia: 13.688,67

Dedikazioa: % 95,81.

H.E.: 3a.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

Derrigortasun data: 1.995-V-30.

B) PERTSONA LABORALAK:

1. Lanpostua: Aguazil jakinarazlea.

Taldea: Lanbide taldea.

Egoera: Finkoa.

Saila: Alkatetza.

Maila: 8.

Osagarri Berezia: 9.930,41

Dedikazioa: %75'96.

H.E.: 2a.

Derrigortasun data: 1.994-XII-31.

2. Lanpostua: Polikiroldegiko arduraduna.

Taldea: C2.

Egoera: Finkoa.

Saila: Alkatetza.

Maila: 12.

Osagarri Berezia: 17.141,38

Dedikazioa: Egutegiaren % 100- a, baina eskusibitaterik gabe.

H.E.: 2a.

Derrigortasun data: 1.994-XII-31.

3. Lanpostua: Gizarte Langilea.

Taldea: A2.

Egoera: Pertsonal laboral mugagabea.

Saila: Gizarte Zerbitzuak.

Maila: 17.

Osagarri Berezia : 1.736,57

Dedikazioa: Egutegiaren % 15 a.

H.E.: 3a.

Derrigortasun data: 1.996-V-1.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

5.- 2/2016 KREDITU ALDAKETAREN ONARPENA. TRANSFERENTZIA KREDITU MOTAKOA.

Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientearen berri eman da, gastu partiden arteko kreditu transferentziaren modalitatekoa.

Idazkari kontu-hartzaileak egindako txostena irakurri da. Bertan adierazten da aipatutako espedientea bat datorrela aplikagarria zaion legeriarekin, zehazki 21/2003 Foru Arauak, abenduaren 19koak, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzkoak, 29. artikuluan ezarritakoarekin.

Era berean, Ogasuneko Batzorde Informatiboak egindako aldeko irizpena eta onarpen proposamena irakurri dira.

Gaia aztertu ondoren, bertaratutako zinegotziek gaia eztabaidatu ondoren aho batez honako erabakia hartzen dute:

Lehenengoa.- Onartzea Udal honen aurrekontuko kredituak aldatzeko espedientea, kreditu transferentzien modalitatekoa, proposamenean ageri den partidakako xehetasunarekin, kapitulukako laburpen honen arabera:

Kreditua transferituko duten gastuak (bajak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Murrizketa	Amaierako kreditua
1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN			
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	8.197,00	3.803,00	4.394,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK	10.000,00	5.170,61	4.829,39
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK			
	GUZTIRA	18.197,00	8.973,61	9.233,39

Kreditua jasoko duten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Egungo kredituak	Gehikuntza	Amaierako kreditua
-----------	-------	------------------	------------	--------------------



2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

1	PERTSONAL GASTUAK			
2	GASTUAK ONDASUN ARRUNT ETA ZERBITZUETAN	23.100,00	5.981,59	29.081,59
3	FINANTZA GASTUAK			
4	TRANSFERENTZIA ARRUNTAK	11.213,00	1.616,00	12.829,00
5	KREDITU GLOBALA ETA BESTELAKO USTEKABEAK			
6	INBERTSIO ERREALAK			
7	KAPITAL TRANSFERENTZIAK			
8	FINANTZA AKTIBOAK			
9	FINANTZA PASIBOAK	42.000,00	1.376,02	43.376,02
	GUZTIRA	76.313,00	8.973,61	85.286,61

Bigarrena.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta exekutiboa denez gero, bidezkoa da Kontuhartzaitza Zerbitzuak berehala kontabilizatzea onartutako kreditu aldaketa.

6.- UDAL KONTU HARTZAILEAK 2016 EKITALDIAN FORMULATUTAKO ERAGOZPENEN AURKAKO DESADOSTASUNAREN EBAZPEN TXOSTENA, BAI ETA DIRU SARREREN ARLOAN DETEKTATUTAKO ANOMALIA NAGUSIA ERE.

Ikaztegieta Udaleko Idazkari-kontu hartzaileak 2016 ekitaldian formulatutako eragozpenen aurkako desadostasunaren ebazpen txostena, bai eta diru sarreraren arloan detektatutako anomalien inguruan txostena aurkezten du.

Aktari atxikitzen zaio.

7.-ORAIN ARTE EXEKUTATUTAKO AURREKONTUAREN ETA ALTXORTEGIAREN BERRI EMATEA.

Idazkari-kontu hartzaileak, 2016. urteko abenduaren 22 arte exekututako aurrekontuaren eta altxortegiaren berri ematen du.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

2016KO ABENDUAREN 28KO OHIKO UDALBATZA

8.-MOZIOA

Bakarne Otegui Jauregui Alkateak, gure segurtasun eredu propio baten norabidean, Espainiako indar polizialaren erretiratzea galdegiteko mozioa aurkezten du.

Ondoren testuaren onespena botoetara jartzen da, botazioak honako emaitza aurkezten du:

-Mozioa: aldeko 6 boto.

Horrenbestez bertaratutako zinegotziek aho batez honakoa erabakitzen dute:

LEHENA: Udal honek, Polizia Nazionala, Guardia Zibila eta Espainiako Armadaren errepliege osoa aldarrikatzen du.

BIGARRENA: Udal honek, indarrean dagoen ordenamendu juridikoan ezarritakoaren arabera eta Eusko Legebiltzarrak gehiengoz onartutako 111/2013 Legez besteko proposamenarekin bat egineik, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari eskatzen dio EAeko lurraldean egin beharreko errepliege plangintza burutu dezala eta Legebiltzarrean aurkeztu dezala, bertan eztabaidatua eta onartua izan dadin.

HIRUGARRENA: Udal honek, Jaurlaritza eta Espainiako Gobernuako Barne Ministerioa biltzen dituen Segurtasun Batzordean Legebiltzarrak onartutako plan hori gauzatzearen beharra aldarrikatzen du.

LAUGARRENA: Udal honek, hartutako erabaki honen berri emango die herritarrei, Eusko Jaurlaritzako Segurtasun Sailari, Espainiako Barne eta Defentsa Ministerioei eta Espainiako Gobernuaren Presidenteri.

BOGARRENA: Onatutako Mozioa akta honi atxikitzea.



IKAZTEGIETAKO UDALA
GIPUZKOA

7.- ESKARI GALDERAK.

EAJ/PNV alderdikoa Patxi Ulanga Mujika zinegotziak adierazten du abenduaren 20an Enirio Aralarko Mankomunitateko bilkura izan zela. Ikaztegieta Udalararen izenean Igor Urreta Garaialde zinegotzia joan zela eta bilkura hasi behar zenean beste herri batzuetako ordezkariekin kanpoan geratu zela. Horren esplikazio bat eskatzen du gaizki iruditzen zaiolako Ikaztegieta herriaren izenean inor ez egotea.

Igor Urreta Zinegotziak erantzuten dio azken momentuko gauza bat izan zela. Mankomunitateko bilkuraren bezperan abenduaren 19an Tolosa eta Goierriko Bilduko ordezkari batzuen artean hurrengo egunean bozkatuko zutena adostu zutela. Beraientzak ere sorpresa izan zela bilkura hasi aurretik, minutu batzuk lehenago, Orendain, Amezketa eta Ataungo Mankomunitateko ordezkariak aurreratu ziena. Aurreko egunean adostutakoa bertan behera utziko zutela eta pisten alde bozkatuko zutela. Eta egoera horren aurrean erabaki zutela Enirio Aralarko Mankomunitateko bilkurara ez sartzea.

8.- BERRI EMATEA

Ez dago berri ematerik.

Besterik ezean, gaueko 22:45 direnean, bilkura honetarako aurreikusitako gai zerrendako gaia aztertu denez, Alkateak udalbatzari amaiera eman dio, eta nik horrela ziurtatzen dut.

O.I.

ALKATEA.-



Idazkaria

IKAZTEGIETAKO UDALA

BARNE KONTROLEKO
URTEKO TXOSTENA

«UDAL KONTU HARTZAILEAK
«2016» EKITALDIAN
FORMULATUTAKO
ERAGOZPENEN AURKAKO
DESADOSTASUNEN EBAZPEN
TXOSTENA, BAI ETA DIRU
SARREREN ARLOAN
DETEKTATUTAKO ANOMALIA
NAGUSIENA ERE»

- LEHENENGOA: ARAUDI JURIDIKOA:

- Indarreko legeriaren arabera (TOALTBko 218. artikulua, Udal horretako barne-kontrolako testu arautzailea eta arloko gainontzeko indarreko araudia); **erakunde ikuskatzaileak egindako eragozpenen aurkako Tokiko Erakundearen presidentek hartutako ebazpen guztien txostena eta diru-sarreraren arloan detektatutako anomalia nagusien laburpena aurkeztuko dizkio Osoko Bilkurari. Txosten horrek funtzio ikuskatzaileari dagozkion alderdiei eta betekizunei bakarrik erantzungo die, ikuskatutako jarduketaren aukera edo komenigarritasunari dagozkion gaiak gaineratu gabe.**

Atal honetan jasotzen denak puntu independente bat osatuko du dagokion osoko bilkurako gai-zerrendan.

Udalbatzako presidentek jarduketaren txosten justifikatzailea aurkeztu ahal izango du osoko bilkuran.

Aurrekoari kalterik egin gabe, eta desadostasunak daudenean, toki-erakundeko lehendakariak kontrol-organo eskudunari aurkeztu ahal izango dio bere ebazpena, finantza-tutoretza esleitua duen administrazioaren gaia delako, hain zuzen.

Beste aldetik, kontu-hartzailetzako organoak txosten bat helaraziko dio urtero Kontu Auzitegiari, toki-erakundeko presidentek eta udalbatzaren osoko bilkurak adierazitako eragozpenen kontra hartutako ebazpen eta hitzarmen guztien inguruan; halaber, diru-sarreraren arloan antzemandako arazo nagusien laburpena bidaliko dio. Dokumentazio horrez gain, tokiko korporazioaren justifikazio-txostenak aurkeztu beharko dira, hala badagokio.»


Gainera, Euskadiko toki-administrazioetako erakunde ikuskatzaileek Herri Kontuen Euskal Epaitegira ere bidaliko dute.

BIGARRENA: ERLAZIOA:

I.- «2016» ekitaldian, erakunde ikuskatzaileak gordetako irizpidetik banandutako erakunde eskudunak onartutako eduki ekonomikoko ekintzakik ez dago.

Ebazpena edo akordioa	Gaia eta Eragozpen / Espediente zkia.	Eragozpenaren kalifikazioa:	Ikuskaritzaren irizpidearen arabera hautitako barne- kontrolako Testu Arautzailearen 2. artikuluaren gordetako suposizioa	Oharrak
		Eragozpen etengarria / Eragozpen ez etengarria		

HIRUGARRENA: DIRU SARREREN ARLOKO ANOMALIEN ANALISIA: Ez dago inolako anomaliarik



Ikaztegietan 2016ko abenduaren 20an

IKUSKATZAILEA